



## Uztailaren 5eko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren 14/1989 FORU ARAUA.<sup>1</sup>

### AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

I. KAPITULUA: IZAERA ETA EGITATE EZARGARRIA.....	2
1. artikulua.....	2
II. KAPITULUA: SALBUESPENAK ETA HOBARIAK.....	2
2. artikulua.....	2
III. KAPITULUA: SUBJEKTU PASIBOAK.....	5
3. artikulua.....	5
IV. KAPITULUA: KUOTA.....	5
4. artikulua.....	5
V. KAPITULUA: EZARRALDIA ETA SORTZAPENA.....	8
5. artikulua.....	8
VI. KAPITULUA: KUDEAKETA.....	9
6. artikulua.....	9
7. artikulua.....	9
8. artikulua.....	9
XEDAPEN IRAGANKORRAK.....	9
Lehena.....	9
Bigarrena.....	10
INDARGABETZE XEDAPENA.....	10
AZKEN XEDAPENA.....	10

### ATARIKOA

---

<sup>1</sup> Azaroaren 27ko 1.202/2001 Foru Aginduak, hainbat zerga arautan jasotako zenbatekoak pezetatik eurora aldatu eta aldaketa horri buruzko arauak ematen dituenak, xedatutakoari jarraiki, Foru Arau honek pezetatan jasotzen dituen zenbateko guztiak eurotara aldatuak geratzen dira. (Abenduaren 13ko GAO, 238. zk.a)



Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arau erregulatzailerak, haien tributu baliabideen artean, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga aipatzen du, Kontzertu Ekonomikoan aurikusitakoaren arabera.

Horregatik, Foru Arau honek obligaziozko Udal Zerga horren arauketa espezifikoak barnebiltzen du, ezarketak Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Udal Zergaren ezabaketa dakarrelarik.

Arautegi honetan, zirkulazio baimenean agertzen den bizilekuko Udalarikudeaketa, likidazioa, ikuskaritza eta bilketa egokitzen zaizkio.

Zerga exijitzeko oinarria tarifa-lauki bat izango da, 2,2 baino handiagoa izango ez den koefizientea aplikatuz Udalek gehitu ahal izango dutena, bestetik tributuen kuoten proportzionaltasuna onartuko da, ezarraldiaren iraupenari dagokionean.

## I. kapitulua: Izaera eta egitate ezargarria

### 1. artikulua.

1. Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga bide publikoetatik zirkulatzeko gai diren era honetako ibilgailuen titulartasuna, edozein delarik beranen mota eta kategoria, kargatzen duen zuzeneko tributua da, zirkulazio baimenean agertzen den bizilekua Gipuzkoako Udalerri bati dagokionean.

2. Zirkulaziorako gai den ibilgailu legez ulertuko da, dagokion errejistro publikoan matrikulatua izan dena, berauetan baja egin ez dezan bitartean. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimendunak eta turismo matrikula dutenak ere barrusartzen dira.

3.<sup>2</sup> Ondokoak ez daude zerga honi lotuta:

a) Modeloa zaharra izateagatik errejistroetan baja emanda dauden ibilgailuak, horrelakoentzat bakarrik antolatzen diren erakusketa, lehiaketa edo lasterketak direla-eta noizean behin zirkulatzeko baimendu daitezkeenean.

b) 750 kilogramotik gorako karga erabilgarria ez duten trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak.

## II. kapitulua: Salbuespenak eta hobariak

### 2. artikulua.<sup>3</sup>

---

<sup>2</sup> 3. apartatu hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 11. artikuluko Bat apartatuak aldatu du, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>3</sup> 2.artikulu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAREN 8. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an sartzen da indarrean (2009/1228ko GAO).



1. Zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal entitateen ibilgailu ofizialak, defentsari edo herritarren segurtasunari atxikita badaude.

b) Ordezkeri diplomatikoen, kontsulatuko bulegoen, eta atzerriko agente diplomatikoen eta karrerako funtzionario kontsular kreditatuen ibilgailuak, kanpotik identifikatuta badaude eta mailan eta hedaduran elkarrekikotasun baldintza betetzen bada.

Baita ere, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, eta estatutu diplomatikoa duten funtzionario edo kideenak.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuestekoak diren ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntzarako nahiz zauritu edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren gainerako ibilgailuak.

e)<sup>4</sup> Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren II. eranskineko A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboiei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

---

Aipatutako 4/2009 forua arauaren xedapen iragankor bakarrak jarraian aipatzen dena ezartzen du :

« XEDAPEN IRAGANKORRA.

Bakarra. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan desgaitasunagatik aplikatzen diren salbuespenak.

Foru arau hau indarrean sartu baino lehen trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan salbuetsitako ibilgailuek uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2.1.e) artikulua idazkera zaharra aplikatuta jaso bazuten salbuespena, berriro eskatu beharko dute salbuespen hori, baldin eta udalari lehendik frogatu ez badiote aipatutako artikulua idazkera berriari ezarritako baldintzak betetzen dituztenik. »

<sup>4</sup> Letra hau maiatzaren 10eko 1/2024 FORU ARAUaren 12. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru araua 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena da. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2024/05/17ko GAO). Aipatutako aldaketak 2024ko apirilaren 20tik aurrera ditu ondorioak.



a') 100eko 33ko edo hortik gorako eta 100eko 65etik beherako desgaitasun maila aitortua duten pertsonak, mugikortasun murriztuko gabezia egoeran badaude. Mugikortasuna murriztuta dutela joko da Mugikortasun Jardueren Mugen azpibaremoan, desgaitasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren bidez onetsian, 100eko 25eko edo hortik gorako mugikortasun falta ematen zaienean.

b') Desgaitasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a') eta b') letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko egoeran badaude eta Mugikortasun Jarduerak Mugatzeko azpibaremoa aplikatuta (desgaitasuna maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren bidez onetsitako azpibaremoa), ondorioztatzen bada haien mugikortasuna 100eko 75ean edo hortik gorako portzentajearen dagoela mugatuta, ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskaleko muga, betiere eta ibilgailua gurpil aulkia eramateko egokituta badago.

Era berean, ibilgailuak zergatik salbuetsita geratuko dira haien titularrek frogatzen dutenean guraso ahalagatik, tutoretzagatik edo kuradoretzagatik beren kargura pertsonaren bat dutela eta haien desgaitasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa dela. Ibilgailu baten baino gehiagoren titularrak badira, bakar bati aplikatuko zaio salbuespena.<sup>5</sup>

f) Autobusak, mikrobusak eta hiri garraio publikoari atxikita dauden gainerako ibilgailuak, plaza kopurua, gidariarena barne, bederatzitik gorakoa denean.

g) Nekazaritzako Ikuskapenaren Kartilaz hornitutako traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makinak.

2. Artikulu honen 1. apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin beharko dituzte ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazioak behin salbuespena onartuta, agiria luzatuko du hura eman dela egiaztatzeko.

Aurreko 1. apartatuko e) letraren bigarren paragrafoan aurreikusitako salbuespenari dagokionez, interesatuak desgaitasunaren frogagiria eta, hala badagokio, mugikortasun murriztuarena, aurkeztu beharko dizkio zerga ezartzen duen udalari, eta ibilgailua zertarako erabiltzen duen ere justifikatu beharko dio udalak dagokion ordenantza fiskalean ezarriko duen eran. Aipatutako frogagiriari organo eskudunak emanak izango dira beti.

---

<sup>5</sup> Paragrafo hau abenduaren 20ko 3/2010 FORU ARAUAaren 2. artikulua gehitzen du. Aipatutako foru arauak Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga aldatzen du (2010/12/24ko GAO). Aldaketa 2011ko urtarrilaren 1ean sartzen da indarrean.



e) apartatuaren arabera minusbaliotasuna duen pertsonaren bat ardurapean duten pertsonak Udalaren aurrean egiaztatu behar dute minusbaliotasun maila eta minusbaliotasuna duen pertsonarekin duten harremana.<sup>6</sup>

### III. kapitulua: Subjektu pasiboak

#### 3. artikulua.<sup>7</sup>

Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrek 35. artikulua 3. apartatua aipatzen dituen entitateak, ibilgailua haien izenean ageri denean zirkulazio baimenean, eta, orobat, testamentu-ahalardea erabili gabe duten herentziak, betiere foru arau honetako 1. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenean.

### IV. kapitulua: Kuota

#### 4. artikulua.<sup>8</sup>

1.<sup>9</sup> Ondoko tarifa-taulen arabera eskatuko da Zerga:

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Kuota
	Euroak
a) Turismoak	
9 zaldi fiskaletik beherakoak	18,39
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	36,78

<sup>6</sup> Paragrafo hau abenduaren 20ko 3/2010 FORU ARAUAren 3. artikulua gehitzen du. Aipatutako foru arauak Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga aldatzen du (2010/12/24ko GAO). Aldaketa 2011ko urtarrilaren 1ean sartzen da indarrean.

<sup>7</sup> Artikulu hau 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUAren 9. artikulua aldatu du. Foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzen du. Foru araua GAO n argitaratutako egunean jarri da indarrean (2016-11-18 GAO), eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

<sup>8</sup> 4. artikulua hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 11. artikuluko Hiru apartatuak berridatzi du, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>9</sup> 1. apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 8. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an sartzen da indarrean (2009/1228ko GAO).



12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	61,30
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	85,82
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	110,34
20 zaldi fiskaletik gorakoak	134,86
b) Autobusak.	
21 plaza baino gutxiagokoak	83,30
21etik 50 plazara bitartekoak	118,64
50 plaza baino gehiagokoak	148,30
c) Kamioiak.	
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	42,28
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	83,30
2.999tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	118,64
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	148,30
d) Traktoreak.	
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	17,67
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	27,77
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak / De más de 25 caballos fiscales	83,30
e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak	
1.000 baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	17,67
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	27,77
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	83,30
f) Bestelako ibilgailuak	



Zikomotoreak	4,51
125 cc-ra bitarteko motozikletak	4,51
125 cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak	7,72
250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak	15,45
500 cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak	30,90
1.000 cc-tik gorako motozikletak	61,79

**2.** Ibilgailu mota desberdinen kontzeptua eta tarifak ezartzeko arauak erregelamenduz finkatuko dira.

**3.<sup>10</sup>** Udalek nahi badute, gehitu egin ditzakete artikulu honen 1. apartatuan finkatutako kuotak, haien gainean koefiziente bat aplikatuz, eta koefiziente hori 3 izango da gehienez.

Udalek koefiziente bat finkatu ahal izango dute artikulu honen 1. apartatuan jasotako tarifen taulan ageri den ibilgailu mota bakoitzerako. Koefiziente hori desberdina izan daiteke ibilgailu mota bakoitzean finkatutako tarte bakoitzerako, baina betiere aurreko paragrafoan zehaztutako gehieneko muga inoiz ere gainditu gabe.

**4.** Udalek aurreko apartatuan aipatzen den ahalmena erabiltzen ez badute, aurreko 1. apartatuan adierazitako kuoten taularen arabera eskatuko da Zerga.

**5.<sup>11</sup>** Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriek honako hobariak arautu ahal izango dituzte zerga kuotaren gainean, koefizienteak aplikatzeagatik gehitutako kuota izan edo ez:

a) 100eko 75era bitarteko hobaria, ibilgailuak kontsumitzen duen karburante motaren arabera, karburante horren errekuntzak ingurugiroan duen eragina aintzat harturik.

<sup>10</sup> 3.apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 8. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an sartzen da indarrean (2009/1228ko GAO)

<sup>11</sup> 5.apartatu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAren 4.artikulua hiru zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).



b)<sup>12</sup> 100eko 75era bitarteko hobaria, ibilgailuen motorren ezaugarriak kontuan hartuta eta horiek ingurumenean duten eraginaren arabera.

Motor elektrikoa duten ibilgailuen kasuan, hobari hau 100eko 95era bitartekoa izan daiteke.

c)<sup>13</sup> 100eko 100era arteko hobaria ibilgailu historikoentzat eta, fabrikazioaren egunetik edo lehen matrikulaziotik kontatuta, gutxienez hogeita hamar urte dituztenentzat.

d)<sup>14</sup> 100eko 90erainoko hobaria bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularrak familiako kide bat bada, familia hori ugarizat hartzen denean indarrean dagoen legeriaren arabera.

Aurreko letretan aipatutako hobariaren gainerako alderdi substantibo eta formalak ordenantza fiskalean arautuko dira.

## V. kapitulua: Ezarraldia eta sortzapena

### 5. artikulua.<sup>15</sup>

1. Zergaldia eta urte naturala bat etortzen dira, salbu ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo Trafikoan behin betiko baja ematen zaienean. Zergaldia, kasu horietan, ibilgailua eskuratzen den egunean hasiko da, edo Trafiko Buruzagitzan behin betiko baja ematen zaion egunean amaituko da.

2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

3<sup>16</sup>. Ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo, horiei behin betiko baja ematen zaienean, kuota hilabete naturaletan hainbanatuko da, ibilgailua eskuratu edo baja eman zaion hilabetea barne.

---

<sup>12</sup> Letra hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAren 11. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).

<sup>13</sup> Letra hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAren 11. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).

<sup>14</sup> d) letra hau abenduaren 23ko 7/2015 Foru Arauaren 7. artikulua gehitu du. Aipatu Foru Arauak, zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean. (2015-12-28ko GAO).

<sup>15</sup> 5. artikulua hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriari Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 11. artikuluko Lau apartatuak berridatzi du, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

<sup>16</sup> 3. apartatu hau uztailaren 5eko 4/2000 Foru Arauak, zenbait zerga neurri onartzen duenaren 5. artikulua berridatzi du. 2000ko uztailaren 13an sartzen da indarrean.





Ibilgailua lapurtzeagatik Erregistro Publikoan aldi baterako baja ematen zaionean ere kuota hainbanatuko da, modu berean.

## VI. kapitulua: Kudeaketa

### 6. artikulua.

Kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den bizilekuko Udalarari dagozkie.

### 7. artikulua.

1. Udalek, Zerga hau autolikidazio erara eskatzeko aukera izango dute.
2. Dagozkien Ordenantza Fiskaletan, Udalek Zerga ordaindu izatea kreditatzeko tresna mota ezarriko dute.

### 8. artikulua.

1. Trafiko Nagusigoari matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasunaren ziurtapena edo ibilgailu baten behin betiko baja eskatzen diotenek, aurretiaz, Zergaren ordainketa kreditatu beharko dute.
- 2.<sup>17</sup> Ibilgailuen titularrek Trafiko Buruzagitzari haien erreformaren berri ematen diotenean, Zerga honen eraginetarako duten sailkapena aldatzen bada betiere, eta orobat, ibilgailuak transferitu, zirkulazio baimenean ageri den helbidea aldatu edo horiei baja ematen dietenean, zergaren azken ordainagiria ordaindu izana frogatu beharko diote aurrez Trafiko Buruzagitzari. Horrek ez du eragotziko, dena den, kontzeptu horregatik sortu, likidatu, kobrantzara aurkeztu eta preskribitu ez diren zor guztien ordainketa kudeaketa eta ikuskaritza organoen bitartez exijitu ahal izatea. Hamabost urteko edo hortik gorako antzinatasuna duten ibilgailuen behin betiko bajak ordainketa frogatzeko obligaziotik kanpo geratzen dira.
3. Trafiko Nagusigoek ez dute ibilgailuen baja edo transferentzia expedienterik izapidetuko, aurretiaz Zergaren ordainketa kreditatzen ez baldin bada.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

### Lehena.

1. Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga, Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan, 1990.eko urtarrilaren 1etik aurrera exijituko da.

---

<sup>17</sup> 2.apartatu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAren 4.artikuluaren lau zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).



Aurreko atalean esandako datararte, Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Udal Zerga exijituko da.

2. Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga Indarrean jartzen denean Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Udal Zergan edozein hobari fiskal dutenek, hobari horiek izaten segituko dute hasieran aipatu zergan, iraungitzen diren arte eta, iraungitze epemugarik ez baldin balute, 1992.eko abenduaren 31rarte, berau barne, lazatuko litzateke gozamen aldia.

### **Bigarrena. Desgaitasuna frogatzeko araubide iragankorra, foru arau honen 2.1 artikuluko e) letran aurreikusitako salbuespena aplikatzeko.<sup>18</sup>**

Desgaitasun egoera desgaitasun maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren arabera aitortua duten zergadunei ez bazaie desgaitasun maila berriro aitortu, deklaratu edo kalifikatu, zilegi izango dute foru arau honen 2.1 artikuluko e) letran aurreikusten den salbuespena aplikatzea salbuespen horren erregulazioak 2022ko abenduaren 31n indarrean zeukan idazketari jarraituta.

### **INDARGABETZE XEDAPENA**

1. Honako Foru Arau indarrean sartzten den datatik, bertan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko nahiz beheragoko xedapenak indarririk gabe utziko dira.
2. Aurreko atalean xedatutakoa Foru Arau honen Xedapen Iragankorretan ezarritakoaren kalterik gabe ulertzen da

### **AZKEN XEDAPENA**

1. Baimena ematen zaio Foru Diputazioari, honako Foru Arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.
2. Foru Arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

---

<sup>18</sup> Xedapen hau maiatzaren 10eko 1/2024 FORU ARAU Aren 12. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru araua 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena da. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2024/05/17ko GAO). Aipatutako aldaketak 2024ko apirilaren 20tik aurrera ditu ondorioak.



## ALDAKETAK

*Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.*

- ***Otsailaren 1eko 3/1994 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako herrialde historikoko araudi fiskala, Estatuaren 1994erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 21/1993 Legea eta neurri fiskalei, funtzio publikoaren araubidearen erreformari eta langabeziarengatik babesari buruzko abenduaren 29ko 22/1993 Legean jasotako neurri fiskaletara egokitzen duena. (1994-02-14ko GAO)***
  - 14.1 artikulua 4.1 artikulua aldatzen du.
  
- ***Martxoaren 18ko 26/1997 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 12/1996, 13/1996 eta 14/1996 legeetan nahiz 1/1997 Errege Dekretu Legean jasotako zerga neurri batzuetara egokitzen duena. (1997-04-04ko GAO).***
  - 28. artikulua 2.1 d) artikulua aldatzen du.
  
- ***Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 FORU ARAUA. (1999-12-31ko GAO).***
  - 11. artikulua 1. artikulua 3. apartatua, 2. artikulua 1. apartatuko d) letra, 4. artikulua eta 5. artikulua aldatzen ditu.
  
- ***Uztailaren 5eko 4/2000 FORU ARAUA, zenbait zerga neurri onartzen duena. (2000-07-12ko GAO).***
  - Bere 5. artikulua 5. artikuluko 3 apartatua aldatzen du.
  
- ***Martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUA, toki entitateen zerga sistema aldatzen duena. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25koa).***
  - Bere 4. artikulua 2. artikulua, 4. artikulua 3 apartatua, 4. artikulua 5 apartatua eta 8. artikulua 2. apartatua aldatu ditu.



- ***Gipuzkoako Lurralde Historikoko martxoaren 8ko 2/2005 Zergen FORU ARAU Orokorra (2005-03-17 GAO).***
  - Bere amaierako hamabosgarren xedapenak 3. artikulua aldatu du.
  
- ***4/2009 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen dituena (2009/12/28ko GAO).***
  - Bere 8. artikulua 2. artikulua eta 4. artikuluko 1. eta 3. apartatuak aldatzen ditu.
  
- ***Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 foru araua aldatzen duen abenduaren 20ko 3/2010 FORU ARAUA. (2010/12/24ko GAO).***
  - Bere 1. artikulua 2. artikuluko 1. apartatuaren e) letra aldatzen du.
  - 2. artikulua azken paragrafo bat gehitzen dio 2. artikuluko 1. apartatuaren e) letrari.
  - 3. artikulua paragrafo bat gehitzen dio 2. artikuluko 2. apartatuari.
  
- ***Irailaren 28ko 5/2012 FORU ARAUA, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergaren uztailaren 5eko 14/1989 Foru Araua aldatzeari buruzkoa (2012/10/04 GAO).***
  - 4. artikulua 5. apartatuko b) letra aldatzen du.
  
- ***7/2015 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, Zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen dituena. (2015/12/28ko GAO).***
  - Bere 7. artikulua 4. artikulua 5. apartatuko d) letra gehitzen du.
  
- ***2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzea (2016/11/18ko GAO).***
  - Bere 9. artikulua 3. artikulua aldatu du.



- **3/2019 Foru Araua, otsailaren 11koa, 2019. urterako zerga neurriak onartzen dituena (2019/02/20ko GAO).**
  - Bere 11. artikulua 4.5. artikuluko b) eta c) letrak aldatu ditu.
  
- **1/2024 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena (2024/05/17ko GAO).**
  - Bere 12. artikulua aldaketa hauek sartzen ditu:
    - Bat apartatuak 2.1 artikulua e) letra.
    - Bi apartatuak bigarren xedapen iragankorra.